

mozion para ser presentada en comision el martes 7 de febrero

Paul Yarza Agirregomezkorta

mié 01/02/2017 11:30

Para: Abiapuntu <abiapuntu@udalermua.net>;

📎 1 archivos adjuntos (63 KB)

Mozioa elektrizitatea.doc;

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 01-02-17 11:53:00
Num./Zk. 809

Paul Yarza Agirregomezkorta, 15.376769G nan zenbakia duenak, 2017ko urtarrilaren 31n, Euskal Herria Bildu Ermua udal taldearen izenean, atxikikutako mozioa aurkezten dut Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.



Paul Yarza Agirregomezkorta, 15.376769G nan zenbakia duenak, 2017ko urtarilaren 31n, Euskal Herria Bildu Ermua udal taldearen izenean, hurrengo mozioa aurkezten dut Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Harriturik eta haserre ikusten ari gara nola azken egunotan, neguko egunik hotzenetan, argindarraren prezioa gora egiten ari den etengabe. Argindarra bezalako oinarritzko beharrian bat, enpresa gutxi batzuen nahietara kudeatzen da, nagusiki Iberdrola eta Endesa. Eta enpresa hauek interes ekonomikoen arabera soilik mugitzen diren bitartean milaka eta milaka dira berogailua isiotu ezin duten pertsonak.

Miserablea da oso horren oinarritzkoa den gauza bat multinazional pribatuen administrazio kontseiluen menetara egotea. Eta egoera anker honen aurrean, ezin gara ezer egin gabe geratu. Iberdrola ermutarrek ordaintzen duten tarifa etengabe igotzen ari den honetan, Ermuko Udalak berak erabiltzen duen elektrizitate guztia enpresa honekin du kontrataturik, ordainetan inolako minimo etikorik ere exigitu gabe herritarrekiko.

Jakitun garen arren sistema energetikoa orokorrean, eta elektrikoa bereziki, biziki konplexuak direla, badago aukerarik instituzio lokaletatik gure aportazioa egiteko gaur egun bizi dugun oligopolio energetikoari aurre egiteko eta hein baten modelo energetikoa demokratizatzeko. Horretarako nahitaezkoa da energia berriztagarrien aldeko hautua egitea, aldaketa klimatikoaren kontra egiteaz gain, energia horniketaren deszentralizazioa ahalbidetzen baitu.

Energia berriztagarri eta arduratsuaren alde egiteak ematen digu aukera aurrez aipatutako printzipioen ildoan doazen kriterio desberdinak ezartzeko. Hau lortzeko, kontratu elektrikoen lizitazio publiko bat planteatzeko ordua dela deritzogu.

Hori horrela, Ermuko Udalak ebazten du:

1. Salatzea sektore elektrikoan existitzen den oligopolioa eta honek egiten dituen prezio ezartzeak, multinazional gutxi batzuen nahien arabera zehazten direnak.
2. Energia berriztagarriaren arloan esperientzia egiaztatua duen entitate bat kontratatzea energia kontsumoaren diagnostikoa egin ahal izateko, eta aurrezpen neurriak eta kontsumoa murrizteko neurriak ezartzeko.
3. Beharrezko tramiteak martxan jartzea energia elektrikoaren kontrataziorako plegu berri batzuk idatzi eta lizitatzeko, ondorengo baldintzak kontutan hartuz:
 - a. Eztaba daezineko puntu bat izango da kontratatzen den energiaren %100 jatorri berriztagarria edukitzea.

- b. Gainera, eta inolako gailak gabe, enpresek kontratatutako hornitze puntuen analisi bat egingo dute, ikusteko kontratatutako potentzia kontsumoaren beharizanetara doitzen den edo ez. Kontutan eduki behar da, kontratatutako potentzia (ordainsari bezala ere ezaguna) argindarraren fakturako atal finkoa dela, eta hori dela azken urteetan gehien garestitu dena, gaur egun fakturaren %40 izatera iritsiz. Potentzia hori doituz, hau da, jaitsiz, argindarraren fakturan beherapen oso adierazgarriak lortu daitezke.
 - c. Azkenik, plegu hauetan kontutan hartuko da enpresak emango duen asistentzia teknikoa eta arreta pertsonalizatua, eta baita herritarrei hitzaldiak ematea, hala nola, argindarraren faktura ulertu eta honetan aurrez ahal izateko tekniken azalpenak.
4. Neurri horiek udal jardueran barneratzea. Tokiko Agenda 21eko markoan eta Aldaketa Klimatikoaren Kontrako borrokaren Udal Programan onartutako ekintza horiek barneratzea, besteak beste.

Estos días asistimos perplejos a como en los días más fríos del invierno el precio de la electricidad se dispara. Un bien básico como es la electricidad regida por los intereses de unas pocas empresas, principalmente Endesa e Iberdrola, que solo piensan en aumentar su cuenta de beneficios mientras miles de personas no pueden encender la calefacción.

Resulta miserable que algo tan básico como la electricidad esté en manos de los consejos de administración de multinacionales privadas. Ante esta situación no nos podemos quedar impasibles. Estos días Iberdrola sube la tarifa que cobra a la ciudadanía de Ermua y mientras tanto el ayuntamiento contrata toda su electricidad con esa misma empresa sin exigirle ninguna contraprestación, aunque sea ética con la ciudadanía.

Desde las instituciones locales, siendo conscientes de la complejidad del sistema energético en general y el eléctrico en particular, podemos aportar nuestro granito de arena para la democratización del modelo energético a través de la desconcentración del mercado eléctrico actualmente en manos de un oligopolio y la promoción de la producción distribuida. Para ello es indispensable en el impulso de las energías renovables, como única fuente de energía que permite la descentralización y además como estrategia necesaria para actuar contra el cambio climático

La herramienta que nos ofrece la compra pública sostenible y responsable nos da la posibilidad de establecer diferentes criterios que vayan en la dirección de los principios recogidos en el párrafo anterior. Para ello creemos que es el momento de plantearnos una licitación pública de los contratos de la electricidad en Ermua.

De esta manera el pleno del ayuntamiento de Ermua acuerda:

1. Denunciar las prácticas oligopólicas que existen en el sector eléctrico y la fijación de los precios al albur del interés de unas pocas multinacionales.
2. Contratar con alguna entidad con experiencia contrastada en el ámbito de la energía renovable un diagnóstico de los consumos de energía para establecer una medidas de ahorro y reducir el consumo.

3. Hacer los trámites administrativos pertinentes para la redacción y licitación de unos nuevos pliegos para la contratación de la energía eléctrica en base a los siguientes requisitos:
 - a. En primer lugar se establecerá como condición inexcusable para contratar, que el 100% de la electricidad que se vaya a suministrar sea de origen renovable.
 - b. Además, y sin coste adicional alguno, las empresas deberán presentar un análisis de las potencias contratadas en los puntos de suministro, para proponer una adecuación del término de potencia con el óptimo de consumo.
 - c. Por último, se valora en estos Pliegos el tipo de asistencia técnica y de atención personalizada que va a recibir el Ayuntamiento, incluidas charlas técnicas a la ciudadanía sobre la factura de la luz y métodos de ahorro en la misma.
4. Incluir estas medidas en la política municipal enmarcada dentro de la Agenda 21 y en el programa Municipal de Lucha contra el Cambio Climático que contendrá entre otras, estas acciones asumidas.